Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA.**

**Organoa**: Udalbatza.
**Batzarra:** Ohikoa.
**Deialdia**: Lehenengoa.
**Eguna:** 2026.03.26.
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.
**Tokia:** Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

**Bertaratuak:**
**Alkatea:** Ladis Satrustegui Alzugaray jn.
**Zinegotziak:**
Gabriel Txoperena Altzugarai jn.
Uxue Royo Pozueta and.
Eneko Fernandez Maritxalar jn.
Pello Astiz Elverdin jn.
José Luis Echegaray Andueza jn.
Ione Fagoaga Echarte and.
Jose Maria Portu Ochoteco jn.
Imanol Goienetxe Maritxalar jn.

**Ez da bertaratu:**
Argiñe Ordoki Urkixo and.
Izaskun Rodriguez Marichalar and.

**Idazkaria**: M. Jose Larrayoz Ariztegui and.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

***SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO.***

***Organo:*** *Pleno.*
***Sesión:*** *ordinaria.*
***Convocatoria****: primera.*
***Día:*** *26.03.2026.*
***Hora****: 19:00 horas de la tarde.*
***Lugar:*** *Salón de Plenos del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka.*

*Asistentes:*
***Alcalde****: D. Ladis Satrústegui Alzugaray.*
***Concejales:***
*D. Gabriel Txoperena Altzugarai.*
*Dña. Uxue Royo Pozueta.*
*D. Eneko Fernández Maritxalar.*
*D. Pello Astiz Elverdin.*
*D. José Luis Echegaray Andueza.*
*Dña. Ione Fagoaga Echarte.*
*D. José María Portu Ochoteco.*
*D. Imanol Goienetxe Maritxalar.*

***No asiste:***
*Dña. Argiñe Ordoki Urkixo.*
*Dña. Izaskun Rodriguez Marichalar.*

***Secretaria:*** *Dña. M. José Larráyoz Ariztegui.*

*En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

*Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:*

**1.-AZKEN BILKURAREN DAGOKION AKTAREN ONESPENA.**

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du, 2026ko otsailaren 26ko akta, aldaketa hauekin:

- Idazkariak adierazi du Udaleko plantilla organikoko 3. puntuari dagokionez bidalitako dokumentazioan akats bat dagoela izenen zerrendan, Irain eskola publikoko atezain lanposturako izendatutako pertsona sartu behar baita.

- Ione Fagoaga andreak adierazi du martxoaren 8ko adierazpen instituzionalari buruzko 5. puntuan honako hau jasotzen dela: "alkateak guztiak gonbidatzen ditu otsailaren 8a dela-eta egingo diren elkarretaratze eta mobilizazioetara"; hau esan behar du: "alkateak guztiak gonbidatzen ditu martxoaren 8a dela-eta egingo diren elkarretaratze eta mobilizazioetara".

***1.-APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESION.***

*El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta de la sesión celebrada el día 26 de febrero de 2026, con las siguientes modificaciones:*

*-la Secretaria indica que en la documentación remitida en relación al punto 3º de la plantilla orgánica del Ayuntamiento hay un error en la relación nominal ya que se debe incluir a la persona nombrada para el puesto de conserje de la escuela pública Irain.*

*-doña Ione Fagoaga indica que en el punto 5º , sobre la declaración institucional del 8 de marzo consta lo siguiente: “el alcalde invita a todos a las concentraciones y movilizaciones que se celebrarán con motivo del día 8 de febrero”; debe decir “el alcalde invita a todos a las concentraciones y movilizaciones que se celebrarán con motivo del día 8 de marzo”.*

**2.- 2026KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA (2/2026 ESPEDIENTEA).**

Kontu-hartzaileak martxoaren 10ean egindako txosten batean adierazten du diru-sarreren bidez sortutako kredituaren aurrekontu-aldaketa egin behar dela: 17506002 partida- 2026rako Nafarroako

***2.- MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2026 (EXPEDIENTE 2/2026): APROBACIÓN INICIAL.***

*En un informe emitido por el interventor con fecha 10 de marzo señala la necesidad de realizar una modificación presupuestaria de crédito generado por ingresos: partida 17506002-*

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Aurrekontu Orokorretan Lesakako Udala diruz laguntzeko partida ekonomiko hau agertzen da (Partida ekonomikoa: 210001 21300 7609 2616B9).

*subvención nominativa en los presupuestos del Gobierno de Navarra (partida 21001.2130076092616B9).*

Landazelaia parkearen II. faseko obretarako 15320 6090001 partida, 100.000,00 eurokoa.

*Contempla la dotación de 100.000,00 € para ejecutar la II fase del parque de Landazelaia, partida 1.153206090001.*

2026ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko oinarriekin bat etorriz, Udalbatzak, aho batez, erabaki du:

*De conformidad a las bases de ejecución del presupuesto del ejercicio 2026, el Pleno, acuerda por unanimidad:*

1.) Onestea Udaleko aurrekontua aldatzeko 2/2026 espedientea.

*1.) Aprobar el expediente de modificación presupuestaria 2/2026 del Ayuntamiento.*

2.) Erabaki hau Udalaren Kontu-hartzailetzari bidaltzea.

*2.) Remitir este acuerdo a la Intervención Municipal.*

**3.- ANDRA MARI ERAKUNDE AUTONOMOKO PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.**

***3.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LA PLANTILLA DEL ORGANISMO AUTÓNOMO ANDRA MARI.***

Lesakako Andra Mari Erakunde Autonomoko Batzordeak bertako plantilla organikoa aldatzeko proposamena onartu zuen, erizain lanpostua berria sortzeko.

*La Junta del Organismo Autonómo Andra Mari de Lesaka aprobó la propuesta de modificar la plantilla orgánica del mismo para crear una nueva plaza de enfermería.*

Espedientean jasota dago aldaketa horren justifikazioa.

*Consta en el expediente la justificación de dicha modificación.*

Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

*El Pleno, por unanimidad, acuerda:*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

1.) Hasierako onespena ematea plantilla organikoaren aldaketa, aipatutako lanpostuei dagokionez.

2.) Akordioa Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek nahiz interesdunek espedientea azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, bat etorriz Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluak 235. artikuluari buruz xedatutakoarekin. Jendaurreko epealdian erreklamaziorik ez badago, behin betiko onetsitzat hartuko da espedientea.

3.) Behin betiko onartuta, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiari kopia igortzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**4.- OTSANGOKO POLIGONOKO ZAMBRA ERAIKINA ERAISTEKO (2. POLIGONOKO 569. PARTZELA) PROIEKTUA ONARTZEA.**

2024ko apirilaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (88 zk.) arditaratu zen Ingurumeneko zuzendari nagusiak emandako 231E/2024 Ebazpena, martxoaren 27koa, onesten duena toki erakundeei dirulaguntzak emateko deialdi bat, Nafarroa osoko hiriguneetan uholde-arriskuaren aurrean babesteko eta egokitzeko eta ingurumenean integratzeko

*1.) Aprobar inicialmente la modificación de la plantilla orgánica en relación con la plaza mencionada.*

*2.) De conformidad con lo dispuesto en el artículo 271, en relación con el artículo 235, de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, este acuerdo se expondrá en Secretaría durante quince días hábiles, a contar desde el siguiente al de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes. Si en el periodo de exposición pública no se formularan reclamaciones, el expediente se entenderá definitivamente aprobado.*

*3.) Aprobada definitivamente, remitir copia a la Dirección General de Administración Local del Gobierno de Navarra y publicarlo en el Boletín Oficial de Navarra.*

***4.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE DERRIBO DEL EDIFICIO ZAMBRA (PARCELA 569 DEL POLÍGONO 2) DEL POLÍGONO DE OTSANGO).***

*En el Boletín Oficial de Navarra nº 88 del día 20 de abril de 2024 se publica la Resolución 231E/2024, de 27 de marzo, de la directora general de Medio Ambiente, por la que se aprueba la convocatoria de "Subvenciones a entidades locales para el desarrollo de actuaciones de protección y adaptación al riesgo de inundación e integración*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

jarduketak garatu ditzaten, Europar Batasunak-NextGenerationEUk finantzaturiko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Udal honek 2. poligonoko 569 partzelan dagoen Zambra eraikina eraisteko lanak egiteko eskabidea aurkeztu zuen.

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren azaroaren 15eko 1142E/2024 Ebazpenaren bidez, dirulaguntzen deialdia ebatzi zen, eta udal hau izan zen obra horien onuradun.

Ikusi da Alberto Bikuña Carrascal arkitekto teknikoak, Krean S, Coop. Enpresaren teknikoa, Lesakako 2. poligonoko 569 lursaila egokitzeko obren proiektua, 2026ko martxoaren 23ko sarrera-datarekin, 935/2026 sarrerazenbakiarekin.

Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.) 2. poligonoko 569. partzelan dagoen Zambra eraikina eraisteko obrak gauzatzeko proiektu teknikoa onartzea.

2.) Akordio hau Kontu-hartzailetzari helaraztea.

**5.- OTSANGOKO POLIGONOKO ZAMBRA ERAIKINA ERAISTEKO (2.**

*ambiental en núcleos urbanos de toda Navarra en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea-NextGenerationEU".*

*Este Ayuntamiento presentó la correspondiente solicitud para las obras de demolición del edificio Zambra sita en la parcela 569 del polígono 2.*

*Mediante la Resolución 1142E/2024, de 15 de noviembre, de la Directora General de Medio Ambiente, se resuelve la convocatoria de subvenciones, resultando este Ayuntamiento beneficiaria para ejecutar dichas obras.*

*Visto el proyecto de las obras de adecuación de la parcela 569 del polígono 2 de Lesaka del arquitecto técnico Alberto Bikuña Carrascal, de la empresa Krean S, Coop., con fecha de entrada del día 23 de marzo de 2026, nº de entrada 935/2026.*

*El Pleno, por unanimidad, acuerda:*

*1.) Aprobar el proyecto técnico para la ejecución de las obras para las obras de demolición del edificio Zambra sita en la parcela 569 del polígono 2.*

*2.) Dar traslado del presente acuerdo a la Intervención.*

***5.- APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE PARA LA CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS***

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

**POLIGONOKO 569. PARTZELA) OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA, BAITA KONTRATUA ARAUTUKO DUEN KLAUSULA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA.**

***DE DERRIBO DEL EDIFICIO ZAMBRA (PARCELA 569 DEL POLÍGONO 2 DEL POLÍGONO DE OTSANGO) ASÍ COMO DEL PLIEGO DE CLAÚSULAS ADMINISTRATIVAS QUE HAN DE REGIR EL CONTRATO.***

Ikusi da Alberto Bikuña Carrascal arkitekto teknikoak, Krean S, Coop. Enpresaren teknikoa, Lesakako 2. poligonoko 569 lursaila egokitzeko obren proiektua, 2026ko martxoaren 23ko sarrera-datarekin, 935/2026 sarrerazenbakiarekin.

*Visto el proyecto de las obras de adecuación de la parcela 569 del polígono 2 de Lesaka del arquitecto técnico Alberto Bikuña Carrascal, de la empresa Krean S, Coop., con fecha de entrada del día 23 de marzo de 2026, nº de entrada 935/2026.*

Obra zibilaren lizitazio-aurrekontua 339.979,78 eurokoa da, BEZik gabe, eta 11.375,54 eurokoa, BEZa barne.

*El presupuesto de licitación de la obra civil asciende a la cantidad de 339.979,78 euros, IVA excluido, y a la cantidad de 411.375,54 euros, IVA incluido.*

Espedientean administrazio-klausulen agiria ageri da, Europar Batasuneko mailatik beherako prozedura irekiaren bidez.

*Consta en el expediente el pliego de claúsulas administrativas, por el procedimiento abierto inferior al umbral comunitario.*

2025. urteko aurrekontuaren arabera, baliabide arrunten % 10, 351.983,02 eurokoa da, eta obra-proiektuaren aurrekontua 339.939,78 eurokoa, BEZik gabe411.375,54 euro, BEZa barne); beraz, Osoko Bilkurari dagokio kontratazioroko onartzea. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio Administrazio Klausula Orokorren Pleguak onartzea.

*Según el presupuesto del ejercicio 2025 el 10% de los recursos ordinarios asciende a la cantidad de 351.983,02 euros y el presupuesto del proyecto de obras asciende a la cantidad de euros, 339.979,78 IVA excluido (411.375,54 euros, IVA incluido), por lo corresponde al Pleno su aprobación para la correspondiente contratación Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los Pliegos de Cláusulas Administrativas Generales.*

Udal idazkaritzaren txosten juridikoa ikusi da.

*Visto el informe jurídico de la secretaria municipal.*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Hori guztia kontuan hartuz, Udalbatzak, aho batez, erabaki du:

*Por todo lo cual, por unanimidad, el Pleno, acuerda:*

1.) Aipatutako obrak kontratatzeko espedientea onartzea, bai eta kontratua arautuko duten klausula administratiboen agiria ere; izapidetze-prozedura Europar Batasuneko atalasetik beherakoa izango da.

*1.) Aprobar el expediente para la contratación de las citadas obras así como el pliego de claúsulas administrativas que ha de regir el contrato, siendo el procedimiento de tramitación el abierto inferior al umbral comunitario.*

2.) Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, indarrean dagoen aurrekontuaren kargura.

*2.) Autorizar el gasto correspondiente que comporta el presente contrato, con cargo al vigente presupuesto.*

3.) Lizitazio publikoa Nafarroako Kontratazio Atarian iragartzea.

*3.) Anunciar la licitación pública en el Portal de Contratación de Navarra.*

4.) Akordio hau Kontu-hartzailetzari helaraztea.

*4.) Dar traslado del presente acuerdo a la Intervención.*

**6.- GARBIÑE OCHOTECO PICABEA ANDREAK SUSTATUTAKO ZALAIN ZOKO AUZOA 9. ZENBAKIKO MADALENBAITA ETXEAREN HIRI-JARDUKETAKO PLAN BEREZIRAKO EZARRITAKO BALDINTZA ONARTZEA.**

***6.- APROBACIÓN DE LA CONDICIÓN ESTABLECIDA PARA EL PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA DE LA CASA MADALENBAITA DEL BARRIO ZALAIN ZOKO Nº 9, PROMOVIDA POR DOÑA GARBIÑE OCHOTECO PICABEA.***

2025eko irailaren 19an, 2843/2025 erregistro-zenbakiarekin, Laura Apezteguia Gonzalez andreak, Garbiñe Ochoteco Picabea andrearen izenean eta bere ordez, Zalain Zoko auzoa 9. zenbakia duen Madalenbaita etxearen (UA-30 unitate asistematikoa - 1. poligonoko 4. partzela) Hiri-jarduketarako Plan Bereziaren formulazioa aurkezten duen dokumentu

*Con fecha 19 de septiembre de 2025, nº de registro 2843/2025, doña Laura Apezteguia González presenta, en nombre y representación de doña Garbiñe Ochoteco Picabea, el documento técnico por la cual se presenta la formulación de Plan Especial de Actuación Urbana de la casa Madalenbaita del barrio Zalain Zoko nº 9 (Unidad*

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

teknikoa aurkeztu zuen teilatupeko solairuan bigarren etxebizitza bat egokitzeko.

*Asistemática UA-30-parcela 4 del polígono 1) con el fin de acondicionar una segunda vivienda en planta bajo cubierta de la casa.*

Udal arkitektoak, 2025eko urriaren 28an txostena eman dio baldintza hauekin:

*El arquitecto municipal, con fecha 28 de octubre de 2025, ha informado la aprobación del plan condicionado a:*

-hasiera batez onartzeko, herritarrek parte hartzeko aurretiazko kontsulta-prozesua egina izan beharko da. Prozesu horren ondorioak, baldin badaude, dokumentuari erantsiko zaizkio, hasierako onespenerako.

*-para la aprobación inicial, realizarse el proceso de participación ciudadana de carácter consultivo previo. Las conclusiones de dicho proceso, en caso de que las hubiere, se incorporarán al documento para su aprobación inicial.*

-behin – betiko onespenaren aurretik Udalak ezabatu egin beharko du etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarraren eskakizuna, osoko bilkuraren gehiengo soilez hartutako erabakiaren bidez eta dokumentua osatu beharko da 253/2019 FDren 9. artikuluan eskatutako dokumentazioarekin.

*-para la aprobación definitiva, el Ayuntamiento deberá eliminar la exigencia del estándar mínimo de vivienda protegida mediante acuerdo adoptado por mayoría simple del Pleno. Y se deberá completar el documento con la documentación exigida en al artículo 9 del DF253/2019.*

2025eko abenduaren 15ean, herritarren partaidetza-prozesua izapidetzeko informazio-bilera egin zen, inolako ekarpenik aurkeztu gabe.

*Con fecha 15 de diciembre de 2025 se llevó a cabo la reunión informativa para el trámite del proceso de participación ciudadana sin haberse presentado aportación alguna.*

2026ko urtarrilaren 14an, 130/2026 erregistro-zenbakiarekin, urtarrilaren 15ean zuzendua-155/2026 erregistro-zenbakiarekin) herritarren partaidetza-prozesua izapidu ondoren, dokumentu berria aurkeztu du.

*Con fecha 14 de enero de 2026, nº de registro 130/2026 (rectificado el día 15 de enero de 2026- nº de registro 155/2026), se presenta por la promotora nuevo documento tras la participación ciudadana.*

Udal Idazkaritzak 2026ko martxoaren 20an

*Visto el informe propuesta de resolución*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

emandako ebazpen-proposamenaren txostena aztertu da.

*emitido por la Secretaría municipal con fecha 20 de marzo de 2026.*

Horri dagokionez, Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

*Al respecto, el Pleno, por unanimidad, acuerda:*

1.) Zalain Zoko auzoa 9. zenbakia duen Madalenbaita etxearen (UA-30 unitate asistematikoa - 1. poligonoko 4. partzela) proiektuari dagokionez babestutako etxebizitzaren gutxieneko estandarra kentzea onartzea, lehenengo solairuko eraikuntza-dentsitatea handitzeko (1 etxebizitzatik 2ra pasatuz).

*1.) Aprobar la eliminación del estándar mínimo de vivienda protegida con respecto al proyecto de la casa Madalenbaita del barrio Zalain Zoko nº 9 (Unidad Asistemática UA-30-parcela 4 del polígono 1) con el fin de aumentar la densidad edificatoria de la planta primera (pasando de 1 a 2 viviendas).*

2.) Akordio hori aurkeztutako Hiri Jarduketako Plan Bereziari dagokion espedientean sartzea.

*2.) Incorporar dicho acuerdo al expediente correspondiente al Plan Especial de Actuación Urbana presentado.*

3.) Erabaki hau Garbiñe Ochoteco Picabea andreari jakinaraztea.

*3.) Notificar este acuerdo a doña Garbiñe Ochoteco Picabea.*

**7.- GARBIÑE OCHOTECO PICABEA ANDREAK SUSTATUTAKO ZALAIN ZOKO AUZOA 9. ZENBAKIKO MADALENBAITA ETXEAREN HIRI-JARDUKETAKO PLAN BEREZIA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

***7.-APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA DE LA CASA MADALENBAITA DEL BARRIO ZALAIN ZOKO Nº 9, PROMOVIDA POR DOÑA GARBIÑE OCHOTECO PICABEA.***

Alkatetzaren 2026ko urtarrilaren 16ko 81 zenbakiko Ebazpenaren bidez, hasieran onartu zen Garbiñe Ochoteco Picabea andreak sustatutako Hiri Jarduketako Plan Berezia, Zalain Zoko 9zk.ko Madalenbaita etxearen teilatupeko solairuko bigarren etxebizitza bat egokitzeko (UA-30 unitate asistematikoa - 1. poligonoko 4. partzela).

*Mediante Resolución de Alcaldía nº 81 del día 16 de enero de 2026, se aprobó inicialmente el Plan Especial de Actuación Urbana promovido doña Garbiñe Ochoteco Picabea, el documento técnico por la cual se presenta la formulación de Plan Especial de Actuación Urbana de la casa Madalenbaita del barrio Zalain Zoko nº 9 (Unidad*

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Dokumentazio teknikoa Laura Apezteguia González arkitektoak aurkeztu zuen 2025eko irailaren 19an 2843/2025 erregistro-zenbakia eta honen eranskina, 2026ko urtarrilaren 14an, 130/2026 erregistro-zenbakia (2026ko urtarrilaren 15ean zuzendua, 155/2026 erregistro-zenbakia). Halaber, ebatzi zen plana hilabetez jendaurrean jartzea.

*Asistemática UA-30-parcela 4 del polígono 1) con el fin de acondicionar una segunda vivienda en planta bajo cubierta de la casa (documentación técnica presentada por la arquitecta Laura Apezteguia González con fecha 19 de septiembre de 2025, nº de registro 2843/2025 y el anexo presentado el día 14 de enero de 2026, nº de registro 130/2026 (rectificado el día 15 de enero de 2026- nº de registro 155/2026). Asimismo se resolvió someter el plan al trámite de información pública por plazo de un mes.*

Iragarkia argitaratu zen 2026ko otsailaren 3ko 24 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2026ko urtarrilaren 20ko Diario de Noticias egunkarian, 2026ko urtarrilaren 20ko Diario de Navarra egunkarian eta udaletxeko iragarki-taulan.

*El anuncio se publicó en el Boletín Oficial de Navarra nº 24 del día 3 de febrero de 2026, en el Diario de Noticias del día 20 de enero de 2026, en el Diario de Navarra del día 20 de enero de 2026 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.*

Espedientea jendaurrean egon den hilabeteko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

*En el periodo de un mes en que ha permanecido expuesto el expediente al público, no se han presentado alegaciones.*

Udal Idazkaritzak 2026ko martxoaren 20an emandako ebazpen-proposamenaren txostena dago espedientean.

*Consta en el expediente el informe propuesta de resolución emitido por la Secretaría municipal con fecha 20 de marzo de 2026.*

Aho batez, Udalbatzaren legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua emanez, Osoko Bilkurak adostu du:

*Por unanimidad de los asistentes, dándose la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, el Pleno acuerda:*

1.) Garbiñe Ochoteco Picabea andreak sustatutako Zalain Zoko 9zk.ko Madalenbaita etxearen Hiri Jarduketako Plan Berezia behin betiko onartzea, hasierako onespena emateko erabili den

*1.) Aprobar definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana de la casa Madalenbaita del barrio Zalain Zoko nº 9 (Unidad Asistemática UA-30-parcela 4 del polígono 1)*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

edukiarekin, eta, hala badagokio, espedientean dauden txostenetan ezarritako zehaztapenak betetzeko baldintzarekin.

*promovido por doña Garbiñe Ochoteco Picabea con el contenido con el que ha sido aprobado inicialmente, y condicionado, en su caso, al cumplimiento de las determinaciones establecidas en los informes que obran en el expediente.*

2.) Behin betiko onespenaren erabakia eta bere araudia NAOn argitaratzea, eta dokumentuaren ale bat Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako Departamentura bidaltzea, onartu eta hurrengo hamar egunen barruan, bai eta emandako txosten teknikoak ere, jakinaren gainean egon daitezen eta ondorioak izan ditzan.

*2.) Publicar el acuerdo de aprobación definitiva y su normativa en el BON y enviar un ejemplar del documento al Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra dentro de los diez días siguientes a su aprobación, junto con los informes técnicos emitidos para su conocimiento y efectos.*

3.) Akordioa sustatzaileari jakinaraztea.

*3.) Notifíquese el presente acuerdo a la promotora.*

**8.- ETXEBIZITZA HUTSEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA: HASIERAKO ONESPENA.**

***8.-ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VIVIENDAS DESHABITADAS: APROBACIÓN INICIAL.***

Etxebizitza hutsen gaineko zerga arautzen duen ordenantza ikusi da.

*Vista la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre viviendas deshabitadas.*

Ikusirik espedienteko Idazkaritzaren txostena.

*Visto el informe de Secretaría obrante en el expediente.*

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

*De conformidad al artículo 325 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra.*

Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

*El Pleno, por unanimidad, acuerda:*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

1.) Hasiera batez onartzea etxebizitza hutsen gaineko zerga arautzen duen ordenantza.

*1.)Aprobar inicialmente la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre viviendas deshabitadas.*

2.) Aipatutako ordenantza jendaurrean jartzea, Onarpen-erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta erakundearen iragarki-oholean iragarri ondoren, jendaurrean jarriko da, auzotar eta interesdun legitimoek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal izateko gutxienez hogeita hamar eguneko epean. Bere kasuan, aurkeztutako erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak ebaztea, Udalak behin betiko onartzea.Hala ere, hasierako onespenaren erabakia behin betikoa izango da erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik egin ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak izateko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, behin betiko testuarekin batera.

*2.) Someterla a información pública, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo mínimo de treinta días en que los vecinos e interesados legítimos podrán examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones. En su caso, la resolución de las reclamaciones, reparos u observaciones presentadas, y aprobación definitiva por el Pleno. No obstante, el acuerdo de aprobación inicial pasará a ser definitivo en el caso de que no se hubiesen formulado reclamaciones, reparos u observaciones. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, deberá publicarse tal circunstancia, junto con el texto definitivo, en el Boletín Oficial de Navarra.*

**9.- CEDERNA-GARALUR ELKARTEA: LANKIDETZA-HITZARMENA, BAZTAN - BIDASOA ESKUALDEA GARATZEKO.**

***9.- ASOCIACIÓN CEDERNA-GARALUR: CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA EL DESARROLLO DE LA COMARCA BAZTÁN-BIDASOA.***

2026ko martxoaren 24an, 953/2026 erregistro-zenbakiarekin, sarrera eman da Cederna-Garalur elkartearen hitzarmenaren proposamena.

*Con fecha 24 de marzo de 2026, nº de registro 953/2026, se da entrada a la propuesta del convenio remitido por la Asociación Cederna-Garalur.*

Hitzarmen honen helburuak hauek dira:

*Estos son los objetivos del convenio:*

1.-Baztan-Bidasoako Aktibazio Planean, Turismo-sektorean, Tokiko Elikadura sistemetan eta

*1.- Desarrollar conjuntamente acciones que respondan a las necesidades y oportunidades que*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

tokiko merkataritzan sortzen diren premiei eta aukerei erantzungo dien ekintzak batera garatzea, horrela, ahaleginak eta erabilgarri dauden baliabideak antolatzeko eta koordinatzeko (lana bost esparrutan egituratuko da: aktibazio plana eta eskualdeko enpresekin lana, turismoaren garapena, elikadura sistemaren garapena, eskualdeko merkataritza zerbitzua (Mincotur, top topa, izoki…), hiltegia). Esparru hauetan, helburu nagusiak dira Baztan - Bidasoaren sustapen bateratua eta proiektu estrategiko propioak nahiz ekimen pribatuarekin batera landutakoak martxan jarri.

*surjan en el Plan de Activación de Baztan-Bidasoa, en el sector turístico, en los sistemas alimentarios locales y en el comercio local, con el fin de organizar y coordinar los esfuerzos y los recursos disponibles. Por lo tanto, el trabajo se estructurará en cinco ámbitos: plan de activación y trabajo con las empresas de la comarca, desarrollo del turismo, desarrollo del sistema alimentario, servicio de comercio de la comarca (Mincotur, top topa, izoki…), matadero. En estos ámbitos, los objetivos principales son la promoción conjunta de Baztan-Bidasoa y la puesta en marcha de proyectos estratégicos propios, así como en colaboración con iniciativas privadas.*

2.- Baztan - Bidasoa eskualdearen garapen jasangarrian parte hartzea, tartean diren udalen interesei erantzunen dieten ekintzak eta proiektuak bultzatuz.

*2.- Participar en el desarrollo sostenible de la comarca de Baztán - Bidasoa, impulsando acciones y proyectos que den respuesta a los intereses de los ayuntamientos implicados.*

3.- Erabakiak arin hartuko direla bermatuko duten mekanismoak ezartzea, betiere beharrezkoa den laguntza teknikoarekin.

*3.- Establecer mecanismos que garanticen una toma ágil de decisiones, contando siempre con la asistencia técnica necesaria.*

Ione Fagoaga andreak adierazi du Geroa Bai taldeak eskualdearentzako ekimen eta laguntza oro babesten duela, baina zalantzak sortzen direla hitzarmenari buruz: horren guztiaren kostua, udal bakoitzari dagozkion ehunekoak eta zenbatekoak, erabakiak bozkatzeko modua (biztanle kopuruaren edo boto haztatuaren arabera...) Horren guztiaren aurrean, taldeak puntu honetan abstenitu egingo dela jakinarazi du.

*Doña Ione Fagoaga señala que el grupo Geroa Bai apoya toda iniciativa y ayuda para la comarca pero se plantean ciertas dudas sobre el convenio: costo de todo ello, los porcentajes y cantidades que proceden a cada ayuntamiento, la forma de votar los acuerdos ( por nº de habitantes o voto ponderado…) Ante todo ello, el grupo informa de su abstención en este punto.*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Alkateak jakinarazi du gai honek eztabaida prozesu luzea izan duela inplikatutako guztien artean: gastuetarako formula, akordioetako bozketaren gaia, biztanle gehiago eta biztanle gutxiago dituzten herrien arteko oreka... Guztion artean eta gehiengo batekin unean-unean adostu beharreko gaiak dira. 4 urterako hitzarmena da, eta guztien arteko adostasuna dakar. Eskualde-mailan lan egitea da funtsezko helburua.

*El alcalde informa que este asunto ha tenido un largo proceso de debate entre todos los implicados: la fórmula para los gastos, el tema de la votación en los acuerdos, el equilibrio entre pueblos de más habitantes y de menos habitantes…. Son cuestiones que se deben acordar puntualmente entre todos y con una mayoría. Es un convenio para 4 años que conlleva un consenso entre todos. El objetivo sustancial es trabajar a nivel comarcal.*

Puntua bozkatu da.

*Se procede a votar el punto.*

EH-Bildu taldeko 5 zinegotzien aldeko botoekin eta Geroa Bai taldeko 4 zinegotzien abstentzioarekin, Udalbatzak honakoa erabaki du:

*Con los votos a favor de los 5 concejales del grupo EH-Bildu y la abstención de los 4 concejales del grupo Geroa Bai, el Pleno, acuerda:*

1.) Onartzea Baztan - Bidasoa eskualdea garatzeko lankidetza hitzarmena, dokumentu horretan jasotako terminoetan.

*1.) Aprobar el convenio de colaboración para el desarrollo de la comarca Baztán - Bidasoa en los términos recogidos en el citado documento.*

2.) Lesakako Udaleko alkateari ahalmena ematea haren izenean eta ordezkaritzan aipatutako hitzarmena sina dezan.

*2.) Facultar al Alcalde del Ayuntamiento de Lesaka para que proceda en nombre y representación del mismo a la suscripción del convenio aludido.*

3.) Erabaki hau alderdi interesdun guztiei jakinaraztea.

*3.) Notificar este acuerdo a todas las partes interesadas.*

**10.-HERRI-ONDASUNEN TRANSAKZIO-HITZARMENETARAKO APROBETXAMENDUA UKO EGITEARI BURUZKO ERABAKIA.**

***10.- ACUERDO SOBRE LA RENUNCIA DEL APROVECHAMIENTO PARA LOS CONVENIOS TRANSACCIONALES DE BIENES COMUNALES.***

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Lesakako Udala irazlaien transakzio-hitzarmenak eskrituratzen ari da partikularrekin.

*Este Ayuntamiento de Lesaka está escriturando con particulares convenios transaccionales de helechales.*

Lesakako Udalak Iruñeko 5 zk.ko Jabetza Erregistroan inskribatuta dauka 1361. zenbakidun finka, hitzarmenak sinatu dituztenei itundutako azalera jabetzan aitortzen zaiena.

*El Ayuntamiento de Lesaka tiene inscrita en el Registro de la Propiedad nº 5 de Pamplona la finca nº 1361 sobre la que se reconoce en propiedad a los suscribientes de los convenios la superficie conveniada.*

Finka horren gainean, Lesakako Udalaren aldeko karga hau dago jasota Iruñeko 5. Jabetza Erregistroan: "Inskribatutako finkaren perimetroaren barruan, eta Udalaren emakidaz, auzotarrek gaztainondo-zuhaitzak landatuta dituzte, eta haietaz baliatzen dira, 46.058,42 areatan; Udalaren emakidaz ere aprobetxatzen dute auzotarrek iratzia, 156.629,16 eremu komunetan gertatzen dena; eta zuhaiztiak Udalak erabiltzen ditu, dohainik, bizilagunei egurra emateko eta udal-aurrekontuari erantzuteko; eta larreak ere auzotarren abereei eusteko."

*Sobre dicha finca consta en el Registro de la Propiedad nº 5 de Pamplona la siguiente carga a favor del Ayuntamiento de Lesaka: "Dentro del perímetro de la finca inscrita, y por concesión del Ayuntamiento tienen los vecinos plantados árboles castaños y se aprovechan de ellos, en una extensión de 46.058,42 áreas; que también por concesión del Ayuntamiento aprovechan los vecinos el helecho que se produce en 156.629,16 áreas de aquel terreno común; y que el arbolado lo destina el Ayuntamiento a proveer gratuitamente de leña a los vecinos y a cubrir las atenciones del presupuesto municipal; y los pastos al sostenimiento también gratuito de los ganados del vecindario."*

Hitzarmenak eskrituratzean, zama hori partikularrekin sinatutako iratze-hitzarmenetara pasatzen ari da, eta hori kaltea da partikularrentzat.

*Al escriturar los convenios, dicha carga está pasando a los convenios de helechales que se están firmado con los particulares, lo que es un perjuicio para los mismos.*

Ondorioz, Udalbatzak aho batez erabaki du:

*En consecuencia, el Pleno, por unanimidad, acuerda:*

1.) Aprobetxamenduaren kargari uko egitea,

*1.) Renunciar a la carga del*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

izan ere, karga hori finka jakin baten jabari publikoko izaerari lotuta zegoen eta, ondorioz, partikular bati eskualdatzean, ondasun publikoaren izaera galtzen du - desafektatu egiten da - eta, beraz, aprobetxamendua iraungitzen da.

*aprovechamiento toda vez que ésta iba vinculada al carácter demanial de la finca concreta y, en consecuencia, al transmitirse a un particular, pierde su carácter de bien público, se desafecta, y por tanto se extingue el aprovechamiento.*

2.) Erabaki hau Iruñeko 5 zenbakiko Jabetza Erregistroari eta Lesakako Notaritzari jakinaraztea, aprobetxamendu hori ezeztatzeko.

*2.) Notificar este acuerdo al Registro de la Propiedad nº 5 de Pamplona y a la Notaría de Lesaka a los efectos de cancelar dicho aprovechamiento.*

**11.- ANUNCIACION OTILIA MENDIVERRI ILARREGUI ANDREAK ESKATUTAKO BASO-APROBETXAMENDUA.**

***11.- APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR DOÑA ANUNCIACIÓN OTILIA MENDIVERRI ILARREGUI.***

2026ko otsailaren 19an (584. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

*Examinada la instancia presentada con fecha 19 de febrero de 2026 (entrada nº 584 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:*

1.) Nafarroako Gobernuko Basoen eta Ehizaren Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Anunciacion Otilia Mendiverri Ilarregui andreak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: zuhaitzen entresaka (15 haritz amerikarra), Eulzeta parajean. Katastroko 10. poligonoko 105D. partzelaren zati bati dagokio.

*1.) Tramitar ante el Servicio Forestal y Cinegético del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por doña Anunciación Otilia Mendiverri Ilarregui para realizar una entresaca de arbolado (15 robles americanos) en el paraje de Eulzeta. Corresponde a parte de la parcela 105D del polígono 10 del catastro.*

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren

*2.) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicarlo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el*

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

bideak.

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko du eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaie. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasarik jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketen kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hark konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka komunala ageri dela udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

**12.-ALKATETZAREN EBAZPENEN**

*estado de los caminos utilizados.*

*Para ello tendrá que constituir la fianza y la tasa establecida, cuyo importe le será indicado. Los particulares que no vayan a utilizar camiones o maquinaria pesada para los trabajos a realizar, no tendrán que depositar esta fianza ni la tasa, siempre que manifiesten por escrito que esto será así y que se harán cargo de los daños que pudieran producirse. No cumplir con esto se considerará infracción de la norma, y se aplicará la siguiente multa: 3 € por cada metro cúbico solicitado, siendo el mínimo de la multa 300 €, y haciéndose cargo del resto de los daños que pudiera ocasionar.*

*3.) Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo del propietario del aprovechamiento. En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.*

*4.) La apertura de nuevas pistas requiere de autorización expresa del Ayuntamiento.*

*5.) Comunicarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.*

***12.-CONOCIMIENTO DE LAS***

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

**BERRI EMATEA.**

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda, 180/2026 ebazpenetik 260/2026 ebazpena arte. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

***RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA.***

*Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía, desde la última sesión hasta hoy, desde la nº 180/2026 hasta la nº 260/2026. A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.*

**13.-OSOKO BILKURAREN KONTROL-JARDUERA. ESKARI ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hogeita hamar minutuak direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

***13.-ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.***

*No se formulan.*

*Siendo las diecinueve horas y treinta minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretaria, certifico.*

Original firmado electrónicamente
SATRUSTEGUI ALZUGARAY LADIS
27/04/2026 10:33:19

18210359V MARIA JOSE LARRAYOZ (R: P3115200B)

Firmado digitalmente por 18210359V MARIA JOSE LARRAYOZ (R: P3115200B)